



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2009-11-19**

VII.URTEA 1.831.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Ahozkoikasunaren erreferente izan nahi du Mintzola Fundazioak

VILLABONA Atzo eginiko aurkezpenan datorren urterako lantzen ari diren asmoak jakinarazi zituzten

FUNTZIOAK Ahozko tradizioaren behatoki dinamikoak izan eta ahozko komunikazio premiei erantzuna ematea dira 2



Estixu Fernandez kazetariak aurkeztu zuen atzoko ekitaldia; instituzioetako ordezkariak ere izan ziren bertan. I.T.



Pedro Tolosa, Agustin Aduriz eta Eli Hilario. I.TERRADILLOS

Genero berdintasunerako diagnostia jarri du martxan Alegiako Udalak 3

Bi merkatarien elkarteek komertzio teknikaria izango dute aurrerantzean

TOLOSA Agustin Aduriz donostiarra arduratuko da «merkataritza sustatzeaz» 4

Galtzakomik lehiaketaren bigarren ediziora 100 lan baino gehiago heldu dira

IBARRA Abenduaren 11n egingo dute sari banaketa; erakusketa ere jarriko dute 6

«Formazio teorikoa eta partaidetza sustatzeko», Partaidetza Jardunaldiak

TOLOSA Guztira hiru jardunaldi izango dira; atzo egin zuten aurkezpena 5

TGIUZ, S.L.k honako lanpostua bete nahi du:

Erref.: UDAL GARAPENERAKO TEKNIKARIA

Tolosaldeko udaltalde 21eko partaide diren udalerriek laguntza emango die beren ekintza planak garatu ditzaten

Honako gaitasunak eskatuko dira:

Goi edo Erdi Mailako Unibertsitate Titulazioa

Agenda 21eko ezagutza izatea eta eskualdea ezagutzea

EGA edo titulu baliokidea

B gidabaimena

Antzeko lanetan esperientzia

Interesatuak, Ian@tolosaldea.net edo **Tolosako San Esteban 20**-ra bidali beharko dute curriculum osoa 8 eguneko epean lan eskaintzaren erreferentzia aipatuz



Josune Zabala Mintzola Fundazioaren zuzendariak datorren urterako dituzten egitasmoen berri eman zuen atzo goizean egindako aurkezpenean. I. TERRADILLOS

«Mintzola Fundazioak bi ezaugarri nagusi dituela esan daiteke: adostasuna eta partaidetza»

MARIA JESUS ARANBURU
Mintzola Fundazioko lehendakaria

«Hitz egiteak salbatu du euskara eta aurrera begira ere euskaraz egitea da erronka»

LOURDES AUZMENDI
Eusko Jaurilaritzako euskararen sustapenerako sailaren zuzendaria

«Euskararen egoera aztertzea beharrezkoa da hurrengo belaunaldiak hitz egin dezaten»

JOSUNE ZABALA
Mintzola Fundazioko zuzendaria

«Ahozko komunikazioan nazioarteko eredu bihurtu gara eta horrela jarraitu behar dugu»

MARKEL OLANO
Gipuzkoako ahaldun nagusia

Ahokotasunaren erreferente izango da Mintzola Fundazioa

Kultura » Atzo aurkeztu zuten «ahozko hitzaren etxe dena»; bertan, datorren urtera begira lantzen ari diren egitasmoak eman zituzten ezagutzera.

ESTI EZEIZA

Duela urtebete emandako hitza beteaz atzo aurkeztu zuten Mintzola Fundazioa. 2008ko urte amaieran, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Villabonako Udalak, Euskal Herriko Bertsotzale Elkarrekin eta Euskal Herriko Unibertsitateak bat egin zuten egitasmo hau aurrera ateratzeko. Hala ere, lau erakunde hauek hasitako bideari, tarte honetan, beste bi babesle ere gehitu zaizkio, Kutxa eta Eusko Jaurilaritza, hain zuzen ere.

Mintzola Fundazioaren helburu nagusietako bat da, euskararen ahokotasunaren esparruan erreferentziatzeko ikerketa eta bilgune izatea. Urtebete inguru darama martxan Mintzolak, egitasmo jaioberrria da eta garatzeko ahokotasunaren esparru zabala duena beraz. Azken hamabi hilabete hauetan eman ditu lehendabiziko urratsak, hala nola, Xenpelar Dokumentazio zentroa zabaltzeko

egitasmoa landu du, bertsolaritzaz haratagoko ahozko generoak bilduko dituen zentroa izan dadin hau.

Aurkezpen ekitaldia

Atzo Subijana etxean egindako aurkezpen ekitaldian jende ugari bildu zen. Estitxu Fernandez kazetaria izan zen aurkezle ekitaldian, eta parte hartu zuten ere, Markel Olanok, Gipuzkoako Ahaldun Nagusia; Maria Jesus Aranburu, Kultura eta Euskara Foru Diputatua eta Mintzola Fundazioko lehendakaria; Eusko Jaurilaritzako euskararen sustapenerako sailaren zuzendaria den Lourdes Auzmendi; Josune Zabala, Mintzolak, egitasmo jaioberrria da eta garatzeko ahokotasunaren esparru zabala duena beraz. Azken hamabi hilabete hauetan eman ditu lehendabiziko urratsak, hala nola, Xenpelar Dokumentazio zentroa zabaltzeko

Maria Jesus Aranburu izan zen hitza hartu zuen lehendabiziko ordezkaria. Honek, Fundazioaren

patrono guztiak bere garaian egindako apustua, eta orain artean egindako lana goraiatu zuen. Bestalde, eskerrak eman nahi izan zizkien Joxerra Gartzia kazetari, idazle eta unibertsitate-irakasleari eta Xenpelar Dokumentazio Zentroan lan egiten duen Arantxa Mariskali, egindako lanagatik. Aranbururen hitzetan, «Mintzolak egin dezakeen esfortzuak garrantzia handia izango du euskararen XXI. mendean». Etorrizunari begira, aurreratu zuten, ahokotasunarekin lotutako ikasketak eskaintzeko egoitza iraunkor izan daitekeela Subijana etxea.

Mintzola, ahozko hitzaren etxe dela esanez hasi zuen bere mintzaldia Lourdes Auzmendik. Baita, nabarmenduz, euskarak denboran zehar bizirauteko izan duen gaitasuna, hitzari esker. Aipatu zuen ere, Fundazioa, proiektu sen-

do eta garrantzitsua dela, zein haren helburua, ahokotasunarekin lotura duen guztia aztertu eta gordezea den.

Ahaldu Nagusiak ere ez zuten hutsik egin nahi izan, eta parte hartu zuen atzoko aurkezpenean. Markel Olanok ahozko kultura eta komunikazioan, euskaldunak eta gipuzkoarrak bereziki nazioarteko eredu bihurtu garena azpimarratu zuen. Horren adibidetzat bertsolariak ipini zituen, «Rock talde onenen pare dira gure bertsolariak, Donostiako belodromoa betetzeko gai baitira».

Ahokotasuna oinarri

Mintzola ahozko lantegiak, bi egiteko nagusi betetzen ditu, ahozko tradizioaren behatoki dinamiko izatea eta egungo gizarteak dituen ahozko komunikazio premia berri erantzun egokia ematea.

» DATORREN URTERAKO EGITASMOAK

1. Dokumentazioa: ahozko genero ezberdinen (bertsolaritza, ipuin kontaketa, kantua, antzerkia...) dokumentazioa biltzen duen zentroa izan nahi du. Hori dela eta, datorren urtera begira, proiektu bat garatzeko asmoa dute.
2. Ikerketa ere Fundazioaren ardatzetako bat da. Ahokoaren gaineko ikerketak egitera bideratuko dute atal bat.
3. Gizarteari, oro har, begira jarrita, hilean behin ahokotasunarekin lotutako ekintza bat antolatze-

ko asmoa dute: tailerrak, jardunaldiak, hitzaldiak... Aurreikuspenen arabera, urtarilean abiatuko dute egitasmo hau.

4. Ahokotasuna hezkuntzan: transmisio oso garrantzitsua dela deritzote. Hori dela eta, dagoeneko hasi dira berritze guneetan zenbait ikastaro ematen.
5. Tolosa laborategi bilakatu da. Hurrengo lau urteetara luzatuko den egitasmo bat da hau, non gazteen eta hauen euskararen erabilera inguruko azterketa bat

egingo duten. Gerora, gauzak antolatzen joateko.

6. Hezkuntzarekin lotuta. Ahokotasuna landu ahal izateko hezkuntzan, honi lotutako programa bat eratzea da Fundazioaren beste xedebetako bat. Honetarako, unibertsitateko adituekin jarri dira harremanetan.
7. Ahoz artea ere egiten delako, iraganean, ahokoaren artea zein izan den egitasmo asmoa dute, eta etorkizunera begira nolako izango den ere aztertu.

Beti nahi
jatekoa

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



30 lagun inguru elkartu ziren bertso afarian

ALBIZTUR Herenegun San Gregorio Eguna ospatu zuten Albizturren eta, besteak beste, 30 lagun inguru elkartu ziren bertso afarian. Amaia Agirre eta Ane Labaka aritu ziren bertsoetan eta herriko Millan Telleria ere gehitu zitzaizkien zenbaitetan. Igandean ere jarraipena izango dute ekitaldiek. Hala, 11:15ean, meza nagusia ospatuko da San Gregorio ermitan. Ondoren, 12:30ean Toka Txapelketa jokatuko da herriko plazan. Urtero bezala, sari bereziak izango dira parte-hartzaileentzat. HITZA



Mendi ibilaldia Sakanako begiralekura

ALITZO Udalak San Donato-Beriain mendira ibilaldia antolatu zuen pasatu berri den igandearako. Hamabost lagun inguru elkartu ziren goizean goiz, 1.493 metroko «San Donato mendi ikusgarrira joateko, Sakanako begiraleku aparta den mendira». Udaletik azaldu dutenez. «Iltasontzi erraldoia bailitzan altxatzen da mendi nafar hau», deskribatzen dute. Bertan dagoen ermitan egin zuten hamaiketako mendizaleek. «Mendi irteera polita» egin zutelaz azaldu dute antolatzaileek. HITZA

Udalak genero ikuspuntutik emakume eta gizonen egoera aztertzen ari da

Alegia » Genero Berdintasunerako Diagnostika abian jarri du; konpromisoak hartuko ditu azterketaren ondoren.

ERREDAKZIOA

Alegiako Udalak Genero Berdintasunerako Diagnostika jarri du abian. Udaletik azaltzen dutenez, hainbat balderei erantzun nahi die egitasmo horrekin, esaterako: «Herritarren artean ba al da desberdintasunik gizon edo emakume izateagatik? Herriko emakume eta gizonezkoek aukera berdinak al ditugu arlo guztietan? Berdinak al dira mugak eta aukerak guztientzat? Etxea, familia, lana, lagunartea... generoak markatzen al ditu bakoitzak arlo horietan dituen egitekoak?».

Ekimen horrek helburu nagusi bat duela zehaztu du Udalak: «Lehenik herriko gizon eta emakumeen egoera aztertzea generoaren ikuspuntutik, eta ondoren, behin diagnostika eskutan izanda, Udalak hartu beharreko konpromisoak hartzea berdintasunaren alde, dagozkien ekintza arloak landuz aukera berdintasun plan baten bidez, egon daitezkeen beharrei erantzuteko».

Berdintasun Batzordea

Neurriak hartzeko, ordea, azterketa egin behar da aurrera, eta memento honetan horretan hasia da Udala. Herriko antolamenduan, arlo desberdinetan generoak, gizon edo emakume izateak nola eta

zer neurritan eragiten duen ikustea lortu nahi du Udalak Diagnostikarekin.

Azterketa hori egiteko prozedura zehaztu dute. Lehenik eta behin, talde eragile bat osatu da, prozesu osoari jarraipena egingo dion taldea, Berdintasun Batzordea deitu diotena.

Horrekin batera, herriko talde, eragile eta kolektibo desberdinekin harremanetan jarri da Udala: kirol eta kultur arloko taldeak, elkarteak, eta abar. Proiektuaren berri eman, eta eragile horietako ordezkariekin banakako elkarrizketak egin dira, eremu bakoitzetik jaso daitezkeen irurketak eta ekarpenak jasotzeko helburuz.

Banakako elkarrizketen fasea amaituta dago dagoeneko. Orain bigarren fasean pasatu dira: taldeetako ordezkari horiek elkartu mahai baten inguruan, eztabaida bidez gaia jorratzen jarraitzeko. Lehen fasean jasotako ideia eta ekarpenak sakondu nahi dira horrela. Eztabaida taldeko bilera aurreko astean egin zuten eta behar diren ekarpenak jaso eta gero, hirugarren eta laugarren faseak gelditzen zaizkie: eztabaida irekia eta herritarren artean egindako inkestak.

Eztabaida irekia eginez «aukera eman nahi zaie parte hartu nahi duten herritar guztiei beren iritzia emateko», gaineratu dute Udaletik. Modu zabal batean, «bakoitzaren ikuspuntu eta bizipenetatik abiatuta eztabaida edo mahai ingurua izatea nahi dugu, eta hemen ere parte hartzeak izugarriko garrantzia du». Bilera hori hila-

ren 23an, astelehena, Kultur Etxean izango da eta 19:00etan hasiko da.

Eta diagnostikarekin bukatzeko, inkestaren txanda iritsiko da: zozketa bidez osatutako populazioaren lagin batean oinarrituz egingo da, eta balderei erantzuten dieten herritarren nortasunaz da ezagutzera emango, modu anonimoan erantzungo dira eta halaxe jasoko dira, norberaren datuak eman gabe.

Diagnostikarekin generoak herriko antolamenduan zer eragin duen ikustea du helburu Udalak

Azterketaren hurrengo pausoak eztabaida irekia eta herritarren artean egingo den inkesta dira

Kultura, hezkuntza, gizarte harremanak, lana, osasuna, garraio publikoa, urbanismoa, ingurumena... «Arlo horietan eta beste hainbatetan herriko gizon-emakumeen egoeraren inguruko azterketa hau egiteko herritarren parte hartzeak duen garrantzia» azpimarratu dute Udaletik. Horregatik, guztiak animatu nahi dituzte astelehenean egingo den bilerara eta baita inkestak egiterako garaian erantzutera ere.

Bildu beharreko dokumentazio eta informazio guztia bildu, aztertu eta txostena egin ondoren, emaitza ezagutzera emango diete herritarrei.



Kultur aretoa ipuinez beteta

ADUNA Haurrei zuzendutako ipuinak eta sendabellarak izan ziren atzo protagonista Adunako Kultur Astean. Benjamin Barandalla aritu zen ipuin kontalari lanetan. Gaurkorako beste ekitaldi bat dago aurreikusita: 20:00etan *Itsasoaren alaba* filma emango dute kultur aretoan. I. GARCIA

Xexili zaindaria omenduko dute musikariek egunotan

ERREDAKZIOA

Igande honetan Xexili Eguna ospatuko dute, musikariek zaindaria. Hori dela-eta eskualdean hainbat ekitaldi egingo dituzte. Gaur, esaterako, Musika Eskolen Elkarteak bultzatuta, Musikalean egitasmoaren baitan kalejirak egingo dituzte musika eskoletako ikasleek. Loatzo musika eskolakoak Alegian, 17:30ean plazan, eta Anoetan, 18:00etan plazan, elkartuko dira bi herrietako kaleak alaitzeko. Tolosako udal musika eskolako akordeoiko ikasleak 19:00etan kalejiran aterako dira herri horretako kaleak musikaz girotzeko, Amaia Lizaso eta Koldo Tarragonaren zuzendaritzapean.

Bestalde, Adunako Kultur Astearen baitan bihar, 18:00etan, Santa

Xexili kontzertua emango dute Loatzo musika eskolakoek kultur aretoan. Igandean bertan, Loatzo musika eskolak festa antolatu du Villabonan egun guztirako.

Tolosan Leidor aretoan musika emanaldia izango da. Kontzertu baino lehen, 11:00etan kalejira egingo du Tolosako kaleetan Musika Bandak: San Frantzisko eliza, Triangulo Plaza, Korreo kalea, Errementari kalea, Triangulo Plaza, San Frantzisko ibiltokia zeharkatu eta Leidor aretoan amaituko dute.

Leidor aretoan Bertan izango da emanaldia, 12:00etan. Musika Bandaz gain Tolosako Udal Txistulari Banda eta Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra ariko dira. Talde bakoitzak bi pieza joko ditu.

Lau kontzertu izango dira Bonberenean, asteburu honetan

Musika » Zura eta Hedoi Etxarte ariko dira bihar, eta El Desvan del Macho eta Decapante, berriz, etzi.

ERREDAKZIOA

Musika eskaintza zabalarekin jarraitzen dute Bonberenean. Asteburu honetan, Zura, Hedoi Etxarte, El Desvan del Macho eta Decapante, igoko dira Bonbereneako taula gainera kontzertuak eskaintzera.

Bihar Zura taldea eta Hedoi Etxarte bakarlaria entzuteko aukera izango da, 22:30etik aurrera. Zura taldea Hondarribiatik dator eta euren bigarren lana aurkeztuko dute, *Kiribil* izenekoa, hain zuzen. Hedoi Etxarte bakarlaria, berriz, Iruñeatik dator; 2004ean Txinan eman zuen bira, eta horren ostean, Dilistak eta Nubliarekin aritu da urte honetan.

Etzirako, bestalde, beste bi kontzertu antolatu dituzte Bonbereneakoek. Batetik, El Desvan del Macho ariko dira, eta bestetik, Decapante. Bihar bezala, etziko zuzenekoak ere 22:30ean hasiko dira.

El Desvan del Macho taldea Arrasatetik dator, eta ez da Bonbereneako taula gainean aritzen diren lehendabiziko aldia. Decapante taldekoak, berriz, madrildarrak dira, eta Europatik eman berri duen bira luzearen ostean egingo dute geldialdixtoa Tolosako Bonberenean.

Komertzio teknikaria izango dute aurrerantzean merkatarien elkarteek

Ekonomia » Agustin Aduriz arduratuko da zeregin horretaz; elkarteek bateratuta antolatuko dituzte eskaintzak.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Igarondo eta Alde Zaharra Dendak merkatarien elkarteek komertzio teknikaria izango dute hemendik aurrera. Agustin Aduriz izango da ardura hori izango duena, eta bere egiteko nagusia Tolosako komertzioa sustatzeaz gain, herriko dendarien beharrak aztertzea izango da.

Komertzio teknikaria Eusko Jaurlaritzaren ekimenez eduki ahal izango dute merkatariak. Pedro Tolosa Alde Zaharra Dendak elkarteak kideak atzo eginiko aurkezpenean azaldu bezala, «hemendik aurrera, era profesionalean landu ahalko da arlo hori, izan ere, orain arte dendariak ginen komertzioa sustatu eta indartzeko lanean ari ginenak, bakoitzak bere eguneroko lanetik kanpo».

Tolosako merkataritzaren inguruan egunero lana egingo duen pertsona bat egongo da, beraz, aurrerantzean. Esaterako, merkatarien arazoak, zalantzak eta kezak aztertuko ditu, eta horrez gain, merkataritzak sustatzeko eta indartzeko egin beharrekoen inguruan proposamenak egingo ditu. «Izan ere, komertzio txikiak etengabe behar dute berrikuntzak sartzea egoera onean mantendu nahi ba-



Pedro Tolosa, Agustin Aduriz eta Eli Hilario, atzoko aurkezpenean. I.T.

dute», gehitzen du Tolosak. Hor sartuko lirateke, esaterako, elkar-teetatik bultzatzen dituzten promozio kanpainak, eta etorkizun laburrean, Gabonetako kanpainak, mugikortasun mahaiean edota berdintasun mahaiean parte hartuko du.

«Dendari guztien zerbitzura»

Agustin Aduriz donostiarra izango da komertzio teknikaria. Astelehenetik ostiralera egingo du lan, Abastos egoitzako bulegoan, 10:00etatik 17:45era astelehenetik ostegunera, eta ostiraletan 10:00etatik 15:00etara. Jendaurreko zerbitzua astelehenetan eta ostiraletan eskainiko du. Berarekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia 943 67 52 24 izango da.

«Gogotsu nago lanari ekiteko, Tolosa dinamizatu eta mugimendua emateko, jendea erakartzeko helburuz lan egiteko», azaldu zuen Adurizek bere aurkezpenean. Bestalde, dendarienganako gertutasuna bultzatu nahi du teknikari berriak: «edozein zalantza edota iradokizun izanez gero, nigana jontzea lortu nahiko nuke, eta herriko dendari guztiek zerbitzu hau bere bezala ikustea».

Datorren urtetik aurrera Igarondo eta Alde Zaharra Dendak elkarteek elkarrekin burutuko dituzte eskaintza bereziki kanpainak, eta ez bakoitzak bere aldetik, eta hori izango da datorren urtean izango duen egitekoetako bat komertzio teknikariak. Halaber, Eusko Jaurlaritzak komertzioa

sustatzeko Tolosarentzat emango duen diru laguntzekin (50.000 euro) zer egin aztertuko du. «Lan horiez gain, gure ustez identifikazio ikur edo markamoduko bat be-

Dendariak komertzio teknikariarengana jo ahalko dute edozein zalantza argitzeko

harko luke Tolosako komertzioak, eta hori ere izango litzateke teknikariaren zeregina, hau da, hori sortzea», gehitzen du Pedro Tolosak. Tolosa herri komertzial bezala ezagutzea lortu nahi dute, «orain arte izan duen izena mantenduz; komertzio eskolaren ideia ere hor dago, eta horrek izen hori bultzatzen lagunduko luke».

«Aparakalekuak dohain»

Bi merkatarien elkarteak, beraz, bateratuta egingo dute lan aurrerantzean, eta horren adibide da, dagoeneko martxan dagoen kanpaina. Alondegiko eta Rondillako luzapeneko aparkalekuan dohain aparkatzeko aukera emango dute Tolosako hainbat komertzio, bertan erosketan eginda txartela oparitutako baitute horretarako. «Ordubete doan aparkatzeko txartelak oparitutako dituzte dendariak; oraingoz dendari batzuek eskuratu dituzte txartelak, eta espero dugu pixkanaka gehiago gehitzea», azaldu zuen atzoko aurkezpenean, Igarondo elkarteak Eli Hilariok.

bukatu ditugu lanak



saltzeko
erosteko
alokatzeko
bilatzeko
oparitzeko
...

motzean esanda:

iragarkilaburrak.com
euskarazko iragarki laburren ataria



Esleitu gabeko lehen zozketa

ETXEBIZITZAK • Voith-Gorostidi eremuko etxebizitza tasatu bakanteen zozketa egin zuten atzo arratsaldetan Leidor aretoan. Guztira 35 etxebizitza tasaturen zozketa egin zuten, eta atzoko lehen zozketarako 129 eskatzaile izan ziren. Bigarren zozketa bat ere egongo

da lehenengoan libre geratzen diren etxebizitzena, hain zuzen ere. Zozketa hori abenduaren 15ean egingo dute. Bigarreneko 5 eskaera onartu dituzte. Kasu honetan, 2009ko irailaren 14a baino lehen erroldatua egotea zen bete beharreko baldintza. n.l.



Jokin Bildarratz alkatea eta Elisabet Arrieta jardunaldien aurkezpenak egitean. E.MAIZ

Tolosako partaidetzako hiru jardunaldi burutuko dira

Gizartea » EHUko doktorea, Sevillatik bi udal teknikari eta Kataluniatik beste partaidetzako teknikari bat etorriko dira.

ERREDAKZIOA

Atzo aurkeztu zituzten 2009ko Tolosako Partaidetzako jardunaldiak. Tolosako Udalean egin zen aurkezpenan Jokin Bildarratz eta Elisabet Arrieta izan ziren.

Hiru jardunaldi izango dira udaletxeko batzar aretoan. Lehena, azaroaren 25ean izango da eta beste biak, abenduaren 1ean eta 2an izango dira. Lehenengoan Elisabet Arrieta izango da, bigarrenan, Javier Encina eta Maria Angeles Avila Sevillatik eta azken saioan Toni Merino etorriko da Kataluniako Rubi herritik. Jardunaldi hauek lehenengo, formakuntza ikuspegitik antolatutakoak dira. Azken batean urteak daramatzate partaidetzaren inguruan lan egiten eta honek horren isla izan nahi duela adierazi zuen Jokin Bildarratz alkateak.

Gaineratu zuenez, urteak daramatzate prozesu parte-hartzaileak garatzen, prozesu bat daramate; «Gauza txikiekin hasi ginen eta jorratzen joan ahala handietara» iritsi direla azpimarratu nahi izan zuen. Adibide bat jarri zuen Bildarratzek «Alde Zaharreko Plan Berezia aurkeztu genuen eta Plan Berezia hori aurkeztu genuenean, esan genuen eta garrantzi berezia eman genuen partaidetzari. Alegia, kriterio orokorrak aprobata baino lehenago, bizilagun eta dendarien egon ginen harremanetan. Behin behineko testua onartu baino lehenago ere beraiekin adostu genuen. Alegazio epea ere, beraiekin adostu da eta hiru hilabete eman dizkiegu eskatu bezala. Orain, etxebizitza bakoitzari be-

raian fitxak emango zaizkie alegazioak aurkeztu ditzaten eta alegazio horien erantzunak ere beraiekin jorratuko ditugu. Hau da, hartu harremanak egiten ari gara. Alde Zaharra ez dugu guk egingo, guk erregulatu egingo dugu. Gure erregulatzeko gaitasunarekin eta parte-hartzaileen sentsibilitatearekin, guztion artean baliozkoa den tresna bat egingo dugu», azaldu zuen Bildarratzek eta beste hainbat adibide leudeke.

Helburu nagusia, guztien formazioa dute eta jardunaldi hauekin hiru ikuspegi ezberdin erakutsiko dituzte.

Formazioa eta partaidetza

Jarraian Elisabet Arrietak hartu zuen hitza eta hiru jardunaldi hauek helburuak azaldu zituen. «Alde batetik, formazioa da baina abiapuntu amankomun batekin. Lehenengo formazioa teoriaren

» JARDUNALDIAK

Azaroak 25 azteazkena

■ **Elisabet Arrieta.** 18:30etik 20:00etara, udaletxeko batzar aretoan. Soziologian doktoratua EHUan eta herri partaidetzan aditua da.

Abenduak 1, asteartea

■ **Javier Encina eta Maria Angeles Avila.** 19:00etatik 20:30era udaletxeko batzar aretoan, Las Cabezas de San Juan (Sevilla) herriko udal teknikariak dira.

Abenduak 2, asteazkena

■ **Toni Merino.** 19:00etatik 20:30era Kataluniako Rubiako Udaleko partaidetzako teknikoak.
■ **Ondoren.** Elisabet Arrietak itxiko du saioa: ekarpenak eta ideiak jasoko ditu Herriarren Partaidetzarako Udak Kontseilua erregulatzeko Udalak proposaturiko araudien inguruan.

ingurukoak izango da eta oinarriko elementu batzuk ezagutu beharko dira denok abiapuntu berdina izan dezagun», azaldu zuen. Beraz saioaren lehenengo helburua formazio teorikoa litzateke.

Bigarren helburutzat, bai hemen eta bai beste toki batzuetan zer egiten den ikusi eta neurri batean baliozgarriak izan daitezkeen erreferente edo klabeak eskuratzeko litzatekeela gaineratu zuen.

Hirugarrena berriz «hiru saio hauek bere horretan amaituko dira baina lanari hortik aurrera ekingo diogu. Edukia, esperientzia, informazioa, ausnarketarako bidea... izango ditu baina hortik aurrera beste pausu batzuk eman nahi ditugu Tolosako araudi horren inguruan», gaineratu zuen Arrietak.

Beraz tolosarrek, hiru jardunaldietan parte hartuz araudia landu eta era berean formazioa jasoko dute. Ikuspegi ezberdinak jaso eta ezagutzeko aukera izango dute eta baita eztabaidarako ere. Guztia publikoa da eta 2015eko webgunean dago araudi proposamena eta orain arte egin den guztia eta ekarpenak egin daitezke.

Hiru jardunaldi hauek ostean jarraipena emango diote. Guztiak gonbidatuak daude.



Dantza emanaldiaren aurkezpena egin zuten kideak. E.MAIZ

Dantza emanaldi berezia izango da info7 irratiaren alde

Villabona » Azaroaren 28an Olaederran izango da. Sarrerak, Villabona, Anoeta, Tolosa, Ibarra eta Zizurkilena daude salgai.

E.MAIZ

Atzo aurkeztu zuten azaroaren 28an egingo den dantza emanaldi berezia. Bertan parte hartuko duten Villabonako Oinkari, Ibarra Alurr eta Tolosako Udaberri dantza taldeetatik bina ordezkarik, info7ren aldeko Tolosaldeko herri ekimeneko beste bi kide eta info7 irratiaren ordezkarik bezala Eider Elduaien izan ziren.

Villabonako Olaederra kiroldegian, 22:30ean izango da dantza emanaldia; helburua, info7 irratiak Euskal Herriaren luze zabalean hedatzea da. Sarrerak, Villabona, Ibarra, Tolosa, Anoeta, Alegría eta Zizurkilena daude salgai.

Info7 irrati zabalduta nahian

Azti begia elkarteak estatututako egitasmoa, herriarren eta herri sektoreen babesarekin bilakatu zen errealitate. Gaur egun, internet bidez zabaltzen du seinalea irratiak www.info7.com helbidean. Hala ere, FM bidez, Euskal Herriko txoko guztietara iristea da beraiekin nahia eta hori errealitate izan dadin, eman beharreko urrats guztiak emango ditu erakundeen au-

rreren. Proiektuak herri oinarria eta borondatezko laguntza ditu benetako zutoin baina eguneroko jarduna komunikazio arloko profesional talde baten esku dago.

Irrati nazionala eta informatzailerak da. Hiru hizkuntzetan emittitzen da baina hizkuntza nagusia euskara du eta komunikatzeko bideak eskaini nahi dizkio herri mugimenduari.

Urruñan du egoitza herriarren ekarpen ekonomikoa duen info7 irratiak. Laguntza eta bazkietza berriak behar ditu. Emanaldiko laguntzaileak TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eta Villabonako Udala dira.

» AZAROAK 28

Dantza emanaldi berezia

■ **Dantza taldeak.** Villabonako Oinkari, Ibarra Alurr eta Tolosako Udaberri izango dira.

■ **Sarrerak.** Villabonako Amasa Kafetegia, Larrea, Kixubi eta Ogi goxoan, Ibarra Atari, Zubiaurre eta Lurdes, Tolosako Elkar, Raku, Orbela eta Zumbeltz, Alegiako Hilario Berrin, Anoeta Itzulin eta Zizurkilgo Egarrin.

■ **Prezioak.** Aldez aurretik erosiz gero helduek 8 euro eta 12 urtetik beherakoek, 5 euro. Egunean bertan helduak, 10 euro eta gaztetxoek 6 euro.

■ **Non.** Villabonako Olaederran.
■ **Noiz.** 22:30ean.

EGUNKARIAREN ALDEKO KANTU JIRA

Egunkaria libre!

Azaroak 21 larunbata, Donostian

- 11:30 Hernaniko dultzaineroak, Parte Zaharrean zehar
- 12:00-14:00 Kantu Jira, Trinitate plazan hasita

100 lan baino gehiago jaso dituzte Galtzakomiken

Kultura » Lanak batez ere eskualdetik bidali badituzte ere badira Bizkaiatik, Arabatik eta Nafarroatik iritsitakoak ere.

REBEKA CALVO

Pasa den astean bukatu zen Galtzaundi Euskara Taldeak, Ibarra-ko Udalaren laguntzarekin, antolatutako Galtzakomik lehiaketara lanak bilatzeko epea.

Guztira 100 bat lan jaso dituzte, izazko kopuru antzekoa, eta gehienak eskualdekoak dira, baina badira ere Nafarroatik, Bizkaiatik eta Arabatik bidalitakoak. Hiru mailatan banatu dute lehiaketa, 12 urtetik beherakoena, 12 eta 18 urte bitartekoena eta 18 urtetik gorakoena, eta maila bakoitzean bina sari banatuko dituzte. Lan gehinak 18 urtetik beherako gazteenak izan dira. «Aurtengoan ere maila altua dagoela antzematen da, aurkeztu dituzten lanak oso txukunak baitira», aurreratu dute Galtzaundi Euskara Taldeko kideek. Epaimahaia, dena den, datorren astean bilduko da saridunak aukeratzeko eta sari banaketa abenduaren 11n izango da Ibarra-ko Kultur Etxean.

Epaimahaia Joseba Antxustegietxarte *Galtzaundiko* komikilariak, Juanba Berasategi marrazki bizi-dunen marrazkilaria, Asisko Urmeneta *Argiako* komikilariak, Iñaki Martiarena *Mattin Berriako* komikilariak, Frantzisko Jabier Etaio *Garako* komikilariak, Iñaki Epelde Tolosako margolariak, Jose Luis Longaron Tolosako margolariak eta Kike Amonarri telebistako aurkezle tolosarrak osatzen dute.

Abenduaren 11tik 18ra bitarte, gainera, lan guztiakin osatutako erakusketara jarriko dute Benito Izagirre kultur etxean.

Bigarrenez

Aurtengoa lehiaketaren bigarren edizioa da. Izazko deialdiak arrakasta izan zuen eta horregatik erabaki zuen antolatzaileek berriz ere egitea.

Galtzakomik antolatzearen asmoa Joseba Antxustegietxarte *Galtzaundiko* komikilariaren erakusketaren ondorekin sortu zen. Komikilariaren erakusketara jarri zuten eta «lortutako arrakasta ikusita komiki lehiaketa egitea bururatu zitzaigun eta Ibarra-ko Udalarekin harremanetan jarri ginenean gure ideia proposa iru-



Iaz ere aurkeztutako lanekin erakusketara osatu zuten Kultur Etxean. R. CALVO

ditu zitzaie», argitu dute Galtzaundi Euskara Taldeko kideek.

Galtzakomik helburuei dagokionez, «literaturan trebatzea, idazmenaren eta sormenaren lantzea; gazteengan gauza artistikoetarako kontzientzia eta sugarra piztea; jarreraren linguistikoak eta euskararen

erabilera bultzatzea; komikigintza eta literaturara hurbiltzeko bideak erraztea; gazteen iniziatiba eta gogoia sustatzeko eurak saioaren prestaketan inplikatzeari; eta euskararen prestigioa biltzea komikiaren bitartez», aipatu dituzte, besterik gabe.

Postalak, lagundu ahal izateko

ERREDAKZIOA

Ibarrik Misisio Taldeak postalak egin ditu hauen salmentarekin eskuratutako diruarekin eskuartean dituen hainbat proiektu finantzatzeko.

Ez da postalak kaleratzen duten lehen aldian, izan ere aurtengoa laugarren urtea da. Misisio taldeak sei postal diseinatu ditu eta postal zein gutun-azal bakoitza euro bat balio

du. Bezeroek postaletan euren mezua inprimatu ahal dute edota enpresetako anagrama jarri.

13x15 zentimetrokoak

Postalak 13x15 zentimetrokoak dira, aipatu moduan euro baten truke eskuratu daitezke, gutun-azala barne, eta mezuak zein anagramak jartzeko salneurri desberdinak daude. Kolore bakarreko 0

eta 500 bitarteko postalak 35 euroren truke eskuratu daitezke; kolore bakarreko 500 postal baino gehiago nahi dutenek 50 euro ordaindu beharko dituzte; bi kolore-eta 0 eta 500 postal artean erosteko 65 euro ordaindu behar dira; eta bi kolore-eta 500 postal baino gehiago eskuratzeko, aldiz, 85 euro.

Postalak eskuratu nahi dutenek 605 705 516 (Jose Mari) telefono zenbakira deitu behar dute edota fotoarruti@lanbroa.com helbidera idatzi.

1997. urtetik lanean

Ibarrik Misisio Taldea 1997. urtetik ari da proiektu desberdinak garatzen eta oraintxe Ekuadorko Baba eta Santa Rosa herrietan, Eritreko Hal-Hal izenekoan, Honduraseko Suyapan eta Indiako Gujeraten aritzen dira.

Orain arte jangelak eta balio anitzeko aretoak zein etxebizitzak eraiki dituzte eta baita sendagaiak erosi ere, besteren artean.

Erremonte profesionala hasi zeneko 100. urteurrenaren jaialdia

Pilota » Zeberio II-Urrutiak partida galdu zuten eta Altuna II-Etxeberria IIIak, berriz, irabazi egin zuten.

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean erremonte jaialdi berezia izan zuten Uharteko (Nafarroa) Euskal Jai Berri frontoian. Bai frontoi hori inauguratu zela bai erremonte profesionala hasi zela 100 urte bete ziren egun horretan eta horregatik egun dauden erremonte jokalariei onak bildu zituzten jaialdian.

Patxi Zeberio elduaindarrak eta Urrutiak Ezkurra eta San Miguelen aurka galdu zuten 40-35 eta Amezketako Garikoitz Altunak eta Etxeberria IIIak osatutako bikoteak 32-40 irabazi zuten Urrizalzasoren aurka.

Laburrak

Saharako ipuin kontaketa gaur, 17:30ean

IBARRA » Saharako ipuin kontaketa izango da gaur, 17:30ean Ibarra-ko Benito Izagirre kultur etxean, Miriam Mendozaren eskutik. Saioa Kultur Truke Hambostaldiaren baitan antolatu dute. Etzi Jose Requejo zuzendariaren 57^o izeneko film laburra ikusi ahal izango da Kultur Etxean 19:30ean. Larunbatean, aldiz, Ibarra, Ekuador, Sahara eta Ukrainaren arteko areto-futbol txapelketa izango da Belabieta kiroldegian 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Fernando Rojoren bideo proiektioa, bihar

BERASTEGI » Berastegiko Urepele elkarteak kideek Fernando Rojo bidaiari tolosarraren bideo proiektioa antolatu dute bihar, 22:00etan elkartean bertan. Bideo proiektioa Afrikan zehar azken urteetan eginko bidaiari inguruarekin izango da. Izan ere, Rojo Afrika sakonago ezagutzeko helburuarekin joan zen hara eta besteren artean, bi etapetan banatutako bidaia egin zuen: Istanbul-Kairo eta handik Johannesburgora.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Nesken taldea: Onintza Iraola, Oihane Sarasola, Nagore Lizardi, Maider Etxebeste, Haizea Errandonea, Agurtzane, Ainhoa Otaño, Mirian Elorza, Iratxe Arana eta Naihara Gorostiaga. Mutilen taldea: Lander eta Imanol Otermin, Mikel Arsuaga, Haritz Sudupe, Haritz eta Imanol Ugarte, Goar Jimenez, Aitor Luluaga, Joseba, Joxe Mari Agirre, Joxe Mari Uranga, Joxe Luis Garaia, Jon Lopez de Munain eta Mikel Arsuaga. HITZA

Neska nahiz mutil, sokatira talde baten lehen urratsak ikusteko aukera dago asteen zehar Ibarrako Belabieta kiroldegian. Gehiago nahi duenak, asteburuetan hainbat herritan, txapelketen jardunaldiak ditu ikusgai.

Ibarrako Sokatira Taldea

ASIER IMAZ

Ibarrako Jaietan, abuztuan, Bartola Festa Batzordeak sokatira apustua antolatu zuen. Zita horretarako gogor entrenatu ziren herriko eta Tolosako neskek. Eguna iritsi zenean, ikuskizun ederra eskaini zuten ehunka herritarren aurrean.

Lander Oterminen, entrenatzaileak, ekitaldi horren berotasunean kokatu du nesken sokatira taldearen berpiztea: «Apustua bukatzean, oraindik bero-bero zuek, txapelketan ateratzeko komentatu genien neskei. Mordo batek baietz esan zuen eta hortik sortu zen nesken taldea. Azkenean ordea, jaietan aritu ziren tiratzaile osogutxi gelditu dira. Hala eta guztiz ere, ingurukoak animatuz, jende berriarekin talde polita sortu da».

Taldeko guztiak hasiberriak direnean, tiraldietan «desmadratzeko» arriskua egon ohi da. «Ez da berdina 6 beterano eta bi berri aritzea, non zaharrek bi berriak ongi dominatzen dituzten, edo 8ak berriak izatea. Hala eta guztiz ere txukun ari dira entrenatzen eta

abenduaren 5ean hasiko duten Euskal Herriko Txapelketan maila polita emango dutelakoan nago; lehen urtea dutela ahaztu gabe».

4 edo 5 mutil berri kolpetik

Mutilen kasua desberdina da. Lehen, eskualdeko hainbat sokatirari Astigarragara joaten omen ziren entrenatzera. Aurten ordea, «hemengo gehiago ginenez eta Ibarrako kiroldegian polea eta entrenatzeko lekua genuenez, hona etortzen hasi ginen».

Otermin, kasu honetan tiratzaile bezala, eta bere kide «zaharrak» entrenatzen ikusita, herriko hainbat gazteri arra piztu zitzaion barnean. Otermin 2003. urtean hasi zen sokatira munduan eta horrela korik inoiz ikusi gabea omen zen: «4 edo 5 berri kolpetik hasia ez dut inoiz ezagutu. Taldeari indarra eman diote eta entrenamenduetan, asteartero eta ostegunero, 11 edo 12 lagun beti hor egotea izugarria da».

Helburuak iraila eta otsaila bitartean kokatu zituzten, hau da, pisu desberdinetako Euskal Herriko Goma Gaineko Txapelketan.

«Iragan asteburuan lauko txapelketa hasi zen eta bertara bi talde eman genituen: bat ongi ibiltzeko eta bestea, beterano eta hasiberriekin osatua, ikasten joateko. Ez da ahaztu behar gero zortzikoa datorrela eta lehen urtean mirari handirik egiterik ez baldin badago ere jende berriak parte hartuko duenez...».

Azken bi urteetan, Ibarrako Belabieta kiroldegian txapelketako jardunaldiren bat ikusteko aukera egon da. Aurten etxean herritarrek ikusteko aukera egongo al den galdetuta, diruaren kontua iritxen da: «Aukera bazegoen, baina ezezkia esan behar izan genuen. Talde berria denez kamisetak, zapatilak... erosi behar izan dira eta diruz larri aurkitzen gara. Oraingoz babesle batekin kontaktatu dugu: Adunako Excavaciones Galarregirekin. Hurrengo asteen berriz, Ibarrako Udalaren diru laguntza jasotzea ere espero dugu».

Goma gaineko probak amaitzean, otsailean, lur gaineko lehia hasiko da. Kasu honetan Ibarrako Sokatira Taldeak atsedean hartuko du. Hurrengo urtean batek daki.

Galtzen jakin, galtzalle izaten ez



» Herrira begira

Aimar Sagastibeltza
Futbol jokalaria

Erdiripudi genbiltzen garaiek alde batea utziz, nahiko momentu onen gaudela esan ditteke. Aurreko hillaletako tentsio eta duede, patxada eta ziurtasun bihurtu die. Urek beren lekura heldu dien itxure do. Hoixe da futbola, emaitza da inporta don bakarra. Eta azken hiru partiduk irabazion doren sailkapenen bigarren postu-re bueltatu ganez, mundu guzietan pozik dau. Ongi pentsatuta, futbola «gezur» bat dela baieztatzen duenak arrozbe osoa duela iruitzen ztaiz.

Nere kasun, Terulea etorri naitzenetik hamar partiduk jokatu izanak poza eta konfiantza ematezkit. Gise hontan, denboraldin eman nahiko nuken mallara hurbildu naiz azken partidutan; eunero lanakin nibel hoi lortzea esperot. Beño beno, zoritxarrez o zorionez, futbolen eun batetik bestea txurie dena beltza bihurtu ditteke, ezta konfiazteik. Konziente naiz hortaz. Logikoa denez, gauzek er-

latibizatzen jakitea da egokina, la-sai mantenduz.

Bestalde, hain gustokoa eta mattea doten bertsolaritza attatu gabe ezin utzi. Euskal Herriko Txapelketako finalerditan dabilteza eta internet bidez saio guztiak seitzeko aukera eukit. Oso malla ona ikusten aiga. Gañea ezuste batzuk pasadie, finalea sailkatzeko favoritotakoak zien bizpahiru bertsolari egoera zallen baitaude. Nere ustez, finalen aurrerpe berrik eottee aberasgarrie da, gaztek indartsu heldu dien señaie.

Azkenik, atzo bertan (herene-gun) nere ekipoko baten kontrako apustue neukela onartu behar; frontenisen 30 tantota hain zuzen. Zazpi taldekideen aparik giñeuzken jokoa eta 30-29 galdu nun. Hoi maaarka! Enun hoixe espero. Harroasko ibillie nitzen aurre hortan beño earki umildu nauea oaingoan. Izane, ekipoa nikeragarriko morboa sortue zeon apustue zela ta etzela, ba belarririk jetsie geldittu naiz, jeje. Latza lekzioa. Ikasbide ona. Egie esan, sekulen eztoz jakin izandu galtzalle izaten, eta hala hobe, konpetibidadae ematen do honek. Hoi bai, ez naiz aitzakik ateatzen edo irabazlekin hasarretzen ibilli ohi dena, nere burukin erretzen naiz, jeje. Beraz, «reban-txako» partidue hitzartue dau. Ez al dot galtzen, bestela maletak in ta Leitzea bueltatzea izanet hobena, jeje.

Bihar Intxurrekoek hiru partida jokatuko dituzte

ERREDAKZIOA

Intxurre pilota elkarteko kideek hiru partida izango dituzte bihar, etxean, Gipuzkoako Txapelketan. Ikaztegietan jokatuko dituzte partida horiek, 19:30ean hasita.

Bigarren mailako kadeteek Eskoriatzaren aurka jokatuko dute. Lehen mailako kadeteek, Intxurre-Gailurrerantz taldeak, Oiarpe- ren aurka jokatuko dute. Nagusie-

tan, Intxurre 2k Zestoa izango du aurkari.

Intxurrekoek bi partida izango dituzte etxetik kanpo asteburu honetan. Nagusien mailan, Intxurre 1ek Usurbil 1en aurka jokatuko du eta lehen mailako kadeteetan Intxurre 1ek Ernioeren aurka ariko dira.

Partida hauek oraindik zehaztu gabe dute ordua eta eguna.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



21°
12°

GOIZA ESTALIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 17°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 032. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur jardunaldiak

■ **Aduna.** *Itsasoaren alaba* filma 20:00etan Kultur aretoan, Kultur Astean.

■ **Ibarra.** Miriam Mendozaren Sa-harako ipuinak Kultur Etxean 17:30ean, Kultur Truke Astean.

Mendi irteerak

■ **Villabona.** Aizkardiren 26. Mendi Astea bukatzeko, igandean mendi irteera Olaederratik 08:30ean; ondoren, bazkaria.

Deialdiak

■ **Altzo.** Idoia Sanchez ipuin kontari ariko da liburutegian 17:30ean.
■ **Alegia.** Maite Franco ipuin kontalaria liburutegian 18:00etan.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Markel Olanok *Euskararik gabe ez dago Euskal Herririk* hitzaldia emango du Kultur Etxean 19:30ean.

Zinema

■ **Tolosa.** *El mantial de la doncella* filma Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, emakumearen aurkako indarkeriaren inguruan.

■ **Tolosa.** Tinkok antolatuta, zinea euskaraz ikasleentzat Leidor aretoan 09:00etan.

Musika

■ **Tolosa.** 19:00etan Eduardo Mokoroa Musika Eskolako akordeo-ko ikasleak, kalejiran aterako direla, Amaia Lizaso eta Koldo Tarragonaren zuzendaritzapean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunik.

Eraberritze lanak amaituta, abian da 'iragarkilaburrak.com', hobekuntza nabarmenekin; HITZArekin batera, euskarazko hogeit bat egunkari, aldizkari eta agerkari digitalek hartzen dute parte proiektuan.

'iragarkilaburrak.com', berrituta

ERREDAKZIOA

Pasa den urteko urrian ekin zion bideari *iragarkilaburrak.com* webguneak, euskarazko hogeit bat hedabide elkarlanean ehumduta, merkaturatzen zegoen hutsunea betetzeko helburuarekin. Izan ere, euskarazko hedabide ugari argitaratzen dituzte paperean iragarki laburrak, baina iaz arte ez zegoen horiek guztiak batera eskaintzen zituen webgunerik. Hutsune horri aurre egin eta euskarazko iragarki laburren atari zabala izateko helburuarekin sortu zen ekimena.

Orain, urtebete geroago, edukia eta itxura aldatu du webguneak, eta soineko berriarekin ageri da dagoeneko sarean, erabiltzaileentzat eta iragarleentzat hobekuntza nabarmenekin.

Plazagunea SL enpresak garatu du webgune berria.

Hainbat aldaketa nabarmen ditu webguneak

Bilatzaile zehatz eta garatuagoak, kategoria berriak, oharrak SMS bidez jasotzeko bidea, iragarkiak *facebook* edota *tuenti* bezalako sare sozialetan zuzenean argitaratzeko aukera, eta beste hainbat aldaketa ere ekarriko ditu webgune berriak.

Orain arte bezala, iragarkiak sarean jartzea doan da norbanakoentzat. Gainera, iragarkiak ostiraletan paperean argitaratzeko aukera ere izango du iragarleak.

Webgunearen aldaketei esker iragarleak erraz hautatu ahal izango du papereko zein eta zenbat ediziotan argitaratu nahi duen iragarkia: hedabide guztietan, horietako batzuetan, ala eskualde edo



Webgune berriak hainbat kontu errazten dizkio iragarleari eta erabiltzaile arruntari: bilaketa zehatzak, mapak, iragarkiari buruzko oharrak SMS bidez doan jasotzea eta antzeko hobekuntzak. HITZA

zonalde zehatz batean soilik, esate baterako.

Hedabide ugari elkarlanean

Gaur egun, *Uztarrria*, *Txintxarri*, *Otamotz*, *Elgoibarren*, *Behe Bidasoako Hitza*, *ukberri.net*, *Oarsoaldeko Hitza*, *Tolosaldeko eta Leizaldea Hitza*, *plaentxia.com*, *Busturialdeko Hitza*, *Lea-Artibai eta Mutriko Hitza*, *Urola Kostako Hitza*, *Irutxuloko Hitza*, *Goerriko Hitza*, *Baleike*, *Geu Gasteiz*, *Eta Kitto*, *larrabetzu.org*, *Berria* eta *Goiena* dira proiektu honetan parte hartzen duten egunkariak, agerkari digitalek eta aldizkariak.

EKTren baitako Bertako Hedabideek sortu zuten proiektua iaz, tokian tokiko hedabide eta elkartekin elkarlanean. Bertako Hedabideetako zuzendari Iban Arregiren hitzetan, gainera, «denborarekin elkarte eta hedabide gehiagorengana iristea da asmoa».

» IRAGARKI LABURRAK

www.iragarkilaburrak.com webguneari lotutako atariak

- **Azpeitia.** uztarrria.iragarkilaburrak.com
- **Lasarte-Oria.** txintxarri.iragarkilaburrak.com
- **Urretxu-Zumarraga.** otamotz.iragarkilaburrak.com
- **Elgoibar.** elgoibarren.iragarkilaburrak.com
- **Soraluze.** soraluze.iragarkilaburrak.com
- **Behe Bidasoa.** bidasoamedia.iragarkilaburrak.com
- **Uribe Kostak.** ukberri.iragarkilaburrak.com
- **Oarso.** oarsoaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com
- **Tolosaldea eta Leizaldea.** tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com

- **Busturia.** busturialdeko-hitza.iragarkilaburrak.com
- **Lea-Artibai eta Mutriko.** 1lbarri.iragarkilaburrak.com
- **Urola Kostak.** urola-kostakohitza.iragarkilaburrak.com
- **Donostia.** irutxuloko-hitza.iragarkilaburrak.com
- **Goierri.** goierriko-hitza.iragarkilaburrak.com
- **Zumaia.** baleike.iragarkilaburrak.com
- **Gasteiz.** geugasteiz.iragarkilaburrak.com
- **Eibar.** etakitto.iragarkilaburrak.com
- **Larrabetzu.** larrabetzu.iragarkilaburrak.com



LAGUN ARO GBC GRAN CANARIA
saskibalo partidarako

Gaur • 20:30ean
Donostiako Ilunben

SAGRARIO LEGARRA (VILLABONA)

sarrerak HITZako gure egoitzan jaso

LUR SAGAR DANTZA EMANALDIRAKO

Bihar • 20:30ean
Tolosako Leidor antzokian

RAMONI OTAMENDI (TOLOSA)
ESTEBAN BEGIRISTAIN (TOLOSA)

sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin

saridunak